

MOZIOA

HONDARRIBIKO UDALAREN ONDASUN eta ESKUBIDEEN INBENTARIOA

Entitate lokal guztiek izan behar dute beraien ondasunen eta eskubideen inbentarioa, Toki Erakundeen Ondasunen Erreglamendua arautzen duen 1372/1986 Errege Dekretuak arautzen duen modura.

Arau berean jasotzen da “Toki-korporazioen mendeko eta nortasun propioa duten erakundeen ondasun eta eskubideen inbentario bereiziak egingo” direla.

Aurrez adierazitako arauak ondoko eginbeharrak zehazten ditu:

- Inbentarioak Udalbatzako idazkariak baimenduko ditu, lehendakariaren oniritziarekin.
- Bestalde, inbentarioaren zuzenketa urtero egiaztatuko ditu.
- Eta azkenik, Udalbatza berritzen den bakoitzean egiaztapena egingo da.

Abotsanitz Udal Taldeak behin baino gehiagotan eskatu izan duen arren, ez du ezagutzen zein den Hondarribiko Udalaren ondasunen zerrenda. alaren aldetik ez zaio erantzun ere egin eta hori dela eta, ez du informaziorik izan inbentario horren dokumenturik ba ote dagoen Hondarribiko Udalean, Arma Plaza Fundazioan eta Hondarribia Lantzen sozietatean.

Udal talde honek ere, azken bi agintaldietan, ez du berririk izan inbentarioaren egiaztapenik egin ote den udalbatzaren berritze bakoitzean, ezta urteroko zuzenketarik egin ote den.

Araudiak jasotzen duen betebeharrak ezinbestekoak dira udal jarduerara egoki bat egiteko, baita herri ondasunen jarraipen eta kontrola egiteko ere.

Azaldutako arrazoiengatik mozio honen bitartez ebazpen proposamen hau egiten da:

-

1.- Hondarribiko Ondasunen inbentarioa jakinaraztea

Hondarribiko Udalaren ondasun eta eskubideen azken inbentarioa jakinaraziko da. Ez soilik Hondarribiko Udalarenak, baizik Hondarribia Lantzen sozietaterenak eta Arma Plaza Fundazioarenak ere.

2.- Agintaldi hasierako egiaztapen agiria

2019-2023 urteen arteko agintaldi hasierako ondarearen egiaztapen agiria jakinaraziko da, eta agiri honen ezean, Toki Erakundeen Ondasunen Erreglamendua arautzen duen 1372/1986 Errege Dekretuak arautzen duen modura, Udalbatza honen lehendakariaren oniritziarekin Idazkari andreaki Inbentarioa egitearen baimentzea eskatuko da.

3.- Urteko zuzenketa dokumentuak

Azken bost urteetako Hondarribiko Udalaren, Hondarribia Lantzen eta Arma Plaza Fundazioaren ondasunen inguruko zuzenketa dokumentuak jakinaraziko dira,

Abotsanitz Udal Taldea

2021ko Abenduak 10